

EDITORIAL

hiru ezaugarri on

Gaur Pyrenaica-ren hiru asmori buruz hitz egin nahi dugu; ezaugarri onak diren hiru asmori buruz, Pyrenaica aurrera ateratzeko (bere egoera sendotuz eta pausoka-pausoka bere kalitatea hobetuz) gure ahalegin atseginetan adore emateko balio dutenak. Euki dezazun —euki dezagun denok— gustatzen zaigun aldizkari bat, etxera heltzen zaigun bakoitzean (urtean lau bider) poza ematen digun aldizkari bat.

Lehenengoa: gure artxiboetan zeuden aldizkariaren ale zaharrak agortzen hasi direla. Jendeak lehenengo aleak eskatzen dizkigu, batzuetan gai konkretu baten interesagatik eta beste batzuetan bilduma osotze arren bakarrik. Horregatik, ba, aurrerago ikusiko duzue, ale honetan kanpaina bat egiten hasi gara: guk ale zaharrak erosi interesa dutenei saltzeko.

Bigarrena: beste kanpaina bat: lehiaketa bat, hain maite ditugun mendiei buruz, Pirineoei buruz. Hobeto esanda, lehiaketa bi: literaturari buruz bata eta argazkiari buruz bestea. Adi egon alearen barruan aurkituko dituzuen oinarriak. Sariak nolakoak diren ez du ajolarik, ia ia sinbolikoak dira, lehiaketa biek lehenengo helburuei gainez egin diete-eta. Gure mendiei buruzko artxibo bizi bat egin nahi dugu eta, batera, batzuk duten mendi-joateko pentsaera hori zabaltzen lagundu ere bai, nora doazen ondo jakinik eta besteei irakasteko irakaspenak aterarik. Horregatik dokumentazioa eta orijinaltasuna sarituko ditugu: mendiari buruz bizipenarik aberatsenak erakutsi eta mendiaren mamia hobeto ateratzen laguntzen digutenen dokumentazioa eta orijinaltasuna.

Hirugarrena: alpinismoari buruzko kuadernotxoaren lehenengo alea argitaratzea. Aconcagua-ri buruzko guztia, Carles Capellas-ek bilduta. Hain ederra den lan hau argitaratzeko, mendizaleei hainbat zerbitzu on ematen dizkien «Servei General d'Informació de Muntanya» delakoarekin lan egiteak poz haundia ematen digu. Ia hau den guretzat lehenengo pausua hainbat eta hainbat bider eztabaidatu dugun gure projektua aurrera eramateko. Hau da: gure hiru hilebeteko aldizkaria baino gauza gehiago argitaratzen hastea.

Hoy queremos comentar tres iniciativas de Pyrenaica, tres detalles que son como buenas señales y que sirven para animarnos en nuestro grato esfuerzo de sacar adelante Pyrenaica, consolidando su situación y mejorando paso a paso su calidad. Para que tengas, para que tengamos todos una revista que nos agrade, que nos produzca una alegría cada vez que llegue a casa cuatro veces al año.

El primero es que se agotan los números viejos de la revista que había en nuestros archivos. La gente nos pide números atrasados, unas veces porque interesa algún tema concreto y otras veces, sencillamente, por completar la colección. Así que, como veréis más adelante, lanzamos en este número una campaña para recuperar números viejos y poder luego satisfacer a los interesados en conseguirlos.

El segundo es otra campaña que lanzamos: un concurso sobre un tema fundamental, esas montañas que tanto nos gustan, los Pirineos. Mejor dicho, dos concursos: uno de literatura y otro de fotografía. Atentos a las bases que encontraréis en el interior. Los premios son lo de menos, son casi simbólicos. Porque los dos concursos han desbordado en su planteamiento los objetivos originales. Queremos ir haciendo un archivo vivo de nuestras montañas y a la vez ayudar a extender esa mentalidad de ir al monte que tienen algunos, sabiendo bien dónde van y sacando enseñanza para transmitir a los demás. Por eso premiaremos la documentación y la originalidad a los que consigan hacernos llegar sus vivencias más ricas del mundo de la montaña, a los que nos ayuden a ir con los ojos abiertos para sacar más jugo al monte.

El último es la publicación del primer número de Cuadernos del Alpinismo, todo sobre el Aconcagua, recopilado por Carles Capellas. Nos llena de alegría poder colaborar con el Servei General d'Informació de Muntanya, que tan buenos servicios lleva prestando a los montañeros, para sacar a la luz este trabajo tan majo. Y a ver si supone para nosotros el primer paso para llevar a la práctica nuestros proyectos tantas veces discutidos de lanzarnos a publicar más cosas que nuestra revista trimestral.

tres buenas señales